

# altza

# porru!

2015eko abuztua · 58

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHTE Allemendi 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · [trikitixa@trikitixa.net](mailto:trikitixa@trikitixa.net)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) · [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)

## INPERNUKO POZA TRIKITIXAREN XIII. JARDUNALDIAK

Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak trikiti jardunaldiak antolatu ditu Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan irailaren 10ean eta 11n.

### TRIKITIXA JOTZEKO TONALITATE EZBERDINAK LEHEN ETA ORAIN

Garai bateko jotzeko moduari erreparatzen badiogu eta gaur egungoarekin alderatu, hainbat ezberdintasun daudela konturatuko gara. Horietako bat tonalitatea da, eta horrek sortzen dizkigun kezkak asetze aldera, gai honi erantzuna ematen saiatuko diren itzal handiko trikitilariak gonbidatu ditugu aurtengo jardunaldietara.



**EGUNA:** Irailak 10, asteazkena (19:30ean)

**LEKUA:** Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan

**HIZLARIA:** Iker Goenaga

Instrumentuek berez, ez dute ezer jotzen... Instrumentuaren kalitateak, jotzeko modua baldintzatzen du? Soinu txikiarekin, gaur egun, zenbat tonalitate erabiltzen ditugu? Zergatik? Zenbat erabil genitzake? Lehengo trikitilariak, soinu txikia hobeto ezagutzen ote zuten?

**EGUNA:** Irailak 11, osteguna (19:30ean)

**LEKUA:** Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan

**MAHAI INGURUA:** Iñaki Garmendia "Laja" eta Joseba Tapia. Moderatzailea: Iosu Arrizabalaga "Izer".

Garai bateko trikitixa jotzeko moduaren adierazle gonbidatu dugu Laja. Elgeta eta Sakabiren ikasle izan zen trikitilari honek haiengandik jasotako jotzeko moduak azalduko dizkigu. Aldaketa etorri zenean berriz, zuzen-zuzeneko protagonistetako bat izan zen Joseba Tapia, aurrekoena jasotzeaz gain tonalitate berriak jorratuz bere ibilbide propioa egin duen trikitilaria.



# TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETAK

Urtero bezala, han eta hemen ospatu dira trikitilari gazteen txapelketak. Orain arte izandakoen emaitzak bildu ditugu jarraian:

## • Getariako XVI. trikitixa txapelketa (2015-05-30)

- 1- Maria Lasa eta Garazi Otaegi
- 2- Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
- 3- Alaitz Urdaneta eta Aiala Etxabe



Argazkia: Ibon Errazu

## • Xanjuandegiko III. trikitixa txapelketa (2015-06-06)

1. Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe
2. Aitor Uzkudun eta Naikari Urdalleta

## • Orioko XVI. Trikiti txapelketa (2015-06-29)

- 1- Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
- 2- Larraitz Etxarte eta Olatz Leturiaga
- 3- Alaitz Urdalleta eta Aiala Etxabe



Argazkia: Ibon Errazu

## OSKORRIK BETIRAKO AGUR ESANGO DU

45 urteko ibilbidearen ondoren, eta 20 diskotik gora kalera-tuta, Natxo de Felipe abeslaria buru duen taldeak agur esango du. Ez dok amairu taldearen arrakastaren erdian egin zuen lehenengo agerraldia Oskorrik, 1971n, eta ordutik, euskal kantagintzan ezagun egin diren hainbat abesti kalera-tu dituzte. Ibilbide oparo horretan, antzerkirako, zinemarako eta haurrentzako ikuskizunetarako musika ere landu du Oskorrik. Natxok berak, Antxon Latxak eta Bixente Martinezek osatu dute taldearen bizkarrezurra.

Euskal Herri osoan emango dituzten 7 kontzertuekin amaituko da Oskorriren azken jira. GETXOn Irailaren 6an 20:00etan Folk Festibalean, BAIONAn urriaren 10ean (Lauga kiroldegian), GASTEIZen urriaren 17an Antzina Folken, iluntzeko 20:30ean, DONOSTIAN urriaren 25ean Victoria Eugenia 20:30ean, IRUÑEAN azaroaren 7an, MAULEn azaroaren 14ean eta azkenekoa BILBOn azaroaren 22an Arriaga antzokian arratsaldeko 19:30ean.

## • Elorrioko II. Trikitixa txapelketa (2015-07-04)

- 1- Julen Alonso eta Alaitz Eskudero
- 2- Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
- 3- Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe

## • Martindegiko XIX. txapelketa (2015-07-12)

1. Joseba Izagirre eta Jugatz Oleaga
2. Eider eta Lierni Tolosa

## • Arrua Beheko VII. Txapelketa (2015-07-19)

1. Aitor Uzkudun eta Naikari Urdalleta
2. Alaitz Urdalleta eta Aiala Etxabe

## • Arrua Goiko V. Txapelketa (2015-07-26)

1. Alaitz Urdalleta eta Aiala Etxabe
2. Aitor Uzkudun eta Naikari Urdalleta
3. Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe

## • Zizurkilko XI. Txapelketa (2015-08-15)

1. Joseba Eizagirre eta Jugatz Oleaga
2. Iratxe Geresta eta Maialen Ugalde

## • Zeanuriko XXXV. Txapelketa (2015-08-16)

1. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
2. Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe
3. Naiara Mantzidor eta Jugatz Oleaga

Txapelketa huez gain, irailaren 3an Zarauzko XXXV. Trikitixa txapelketa ospatuko da ilunabarreko 20:30ean Modelo aretoan eta Artadiko trikitixa txapelketa irailaren 27an arratsaldeko 18:00etan Zumaiaiko Artadi auzoan.

## XABI ABURRUZAGA ORTIGEIRA JAIALDIAN



Argazkia: Xabi Aburruzaga

laz nazioarteko folk txapelketa irabazi zuen Xabi Aburruzagak bere bandarekin, eta jasotako sarien artean aurtengo Galiziako Ortigeira jaialdi ezagunean jotzeko aukera izan du. Uztailaren 17an eskaini zuten kontzertua eta beraiekin batera Cristina Pato eta Sharon Shannonek ere parte hartu zuten jaialdian. Hainbat musikari izan zituen Aburruzagak lagun; panderoarekin Aitor Uribarri, baterian Igor Telletxea, baxuan Mikel Artieda, bibolinean Xabier Zeberio, albokan Gorka Urmeneta eta gitarran Aitor Antruejo. Dantzariak berriz, Arkaitz Pascuas eta Nagore de las Cuevas izan ziren.

## GEURE KOLKOTIK 2015

disco  
BERRIAK

Aurten Geure Kolkotik bildumako seigarren diskoa argitaratuko du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Trikitixa eta perkusio ezberdinez osaturiko hiru pieza berri sortu ditu partaide bakoitzak eta beraz, guztira 12 pieza bilduko ditu diskoak.

Parte hartu duten musikariak honakoak izan dira:

- ▶ Laja
- ▶ Martin
- ▶ Tapia
- ▶ Zabale

Trikitilariak laguntzaile ezberdinak izan dituzte aldamenean: Mikel Alustiza, Leturia, Motriku, Imanol Urkizu, Lurdes Alkorta eta Idurre Arriola.

Aurreko diskoetan bezala, honetan ere mota ezberdinetako piezak entzun ahal izango dira: Trikitixa, porrusalda, fandangoak, arin arinak, kalejira, reel-a, polka, baltsa. Hernaniko Oh Brother estudioan ekainean eta uztailean grabatu zuten diskoa eta urrian plazaratuko da.



Argazkia: Iosu Arrizabalaga "Izer"



Hogeita bost urteko ibilbidea daramate Imuntzo eta Belokik eta urriaren hasieran kaleratuko dute "Egurre" disko berria, beraien zortzigarrena. 13 kantu izango ditu diskoak eta ohiko estiloa jarraituko dute: trikiti-porrusalda, rantxerak, polkak, kunbiak, kalejirak e.a. Lehengo zenbait kanturen bertsioak eta beste zenbait kantu berri izango ditu lan berri honek. Musikariak, Imuntzo, Beloki, Jimmy Arrabit eta Fred Iturri dira, baina hainbat kolaboratzaileen laguntza ere izan dute: Sebastian Otaburu, Maider Ansa, Landakanda, Porrotx, Jon Galarraga eta Eñaut jauregi. Mauriziak ere izango du tartetxo bat diska honetan.

Uztaila bukaeran hasi ziren grabaketa lanekin Elkar argitaletxean.

Honez gain uztailaren 5ean "Pirineo Sur" bi eguneko jaialdian parte hartu zuten Imuntzo eta Belokik beren taldearekin.

## ARIZTERRAZU. MANDIOKO (AZKEN) ERROMERIA

Joxemari Iriondok idatzi duen liburu honek, Arizterrazuri buruzko hainbat pasarte eta pasadizo biltzen ditu. Urteetan zehar egindako bilketa lanaren emaitza izan da.

Liburuari disko bat erantsi zaio Arizterrazun bertan egin diren erromerietako eta jaialdietako hainbat grabaketekin. Trikitixa Elkarteak bere artxiboan dituen audioen aukeraketa bat egin da, kalitateari baino duten balio historikoari garrantzia emanaz. Elkarteak azken urteetan Soinuaren Liburutegia bilduman argitaratu dituen liburuen artean hamaikagarrena izango da hau.

Urrian egingo da liburuaren aurkezpena, Arizterrazun bertan egin nahi den jaialdiarekin batera.



## Agurtzane Elustondo

Laja izan zen zure irakaslea, zer ekarri zizun?

“Urte asko pasa dira, gurasoek eramaten ninduten Lajane-  
ra. Denbora gutxi ibili nintzen, berehala esan zidan nahiko  
ikasi nuela. Belarriz ikasi nuen, bera aurrez aurre jarrita.  
Oinarria berak eman dit. Gero hortik bakarrik jartzen zare-  
nean hor esfortzu handiagoa egin behar duzu, bai belarriz  
edo solfeoz. Nik solfeo ikasketak egin nituen eta gero apli-  
kazioa nire kontura etorri da. Edota Martinek erabiltzen zuen  
zenbakizko metodoa ere nire kontura ikasi nuen. Bakoitzak  
bere kontura eta beste trikitilariak entzunda beti ikasten da,  
baina bai, oinarria Lajarekin ikasi nuen.

**Kantuz kantu irratsaioa. 2015-06-01**

## Jon Elustondo

Burnizko kateia; kontaiguzu

“Doinua Kepa Junkera trikitilariak eginga da eta elkarrekin jo  
degu. Doinu horretan Legazpi eta burdinaren lotura horri tiraka,  
geure aitona zana, Elgoibarkoa, fundizioan aritu zan eta gure aita  
ere Legazpira gerturatu zan lanera. (...) Bertan isladatzen da  
gure familiko katea eta Legazpik burniarekin eduki duen lotura  
potentea. Gero, baita lehengo trikitilariekin ere, Elgeta, Sakabi,  
Auntxa, Maltzeta, Laja, Epelde, Martin, Junkera, Tapia..., hori azke-  
nean kate bat da, eta hori dena agertzen da kantu horretan”.

**Kantuz kantu irratsaioa. 2015-06-01**

## Ramon Azpitarte “Imuntzo”

Beraz, sasoiko dago trikitia.

“Kalean asko entzuten da, oso giro alai jartzen duelako, eta hori  
ederra da. Giro hori gustatzea, gainera, erraza da; ikasteak, ordea,  
orduak sartzea eskatzen du. Afizioa badago, kontua da ikasleek esko-  
laz kanpoko ikasgai asko dituztela eskuartean eta hori nabaritzen da  
gero. Orain, herriko festak hasi dira, eta ikasleekin saioak ematen ditu-  
gu. Giro polita sortzen da kalean, eta ederra da hori”.

**Urola Kostako Hitzak. 2015-06-09**

## Kristina Solano

Musika instrumentuak ikastea ez da lan erraza.

“Instrumentu bat ikastea niretzat alde batetik gustatzea da noski eta bes-  
tetik gozatzea. Ez da erreza, disziplina pixkat behar dezu. Badaude ume  
batzuk beraien kabuz hartzen dutena eta egunero txintxo txintxo beren  
orduak sartzen dituztenak. Badaude beste batzuk, ba, gurasoek egon  
behar dutela gainean. Maria Lasa eta Irati Otaegik adibidez, beraien kons-  
tantzia horrekin lortu dute Kepa Junkerarekin herriz herri ibiltzea eta gustu-  
ko gauza egitea gainera”.

**Eitb.eus/albisteak/musika. 2015-07-05**

## Laket taldea Katalunian

Uztailean Cardona eta Sant Celoniko Euskal Festetan  
izan ziren jotzen Laket taldekoak. Bertako Strombers  
taldearekin kolaborazio bat egiteko aukera izan zuten  
eta Strombersek udazkenean kaleratuko duen diskoan  
trikitia eta taldeko bi nesken, Maitane Ayerzaren eta  
Aiora Urdangarinen, ahotsak entzungo dira abesti  
batean.

## Felisa Arrizabalaga

Felisa Arrizabalaga Ituarte panderojole bizkaitarra  
zendu zen ekainaren 30ean 93 urte zituela. Eduar-  
do Egiarte bere senarrarekin ibiltzen zen pandero  
jotzen, baita Basilio eta Juanita Gorroñorekin ere.

## XVII. Erromeria eguna Oreretan

XVII. Erromeria eguna ospatu zen uztailaren  
18an Oreretan. Ereintza Dantza taldeak herri  
dantzei eta erromeria giroari bultzada bat ema-  
teko antolatzen duen eguna da. Hainbat ekitaldi  
izan ziren egun guztian zehar; besteak beste  
Mikel Deuna eta Ereintza Dantza Taldeen saio-  
ak, Maider eta Ixiar, Errege Belda eta Andoitz  
Antzizar, Erretereria Musikaleko trikitilariak,  
Erretereriako Gaiteroak, Oarsoaldeko txistula-  
riak, Zubietako joaldunak, Juan Mari Beltran  
eta Aiko Taldea.